

## Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

'3Blai' haur eta gazteei zuzendutako asteburuko aisialdi programa bat da, ikasturtean zehar talde iraunkorrak sortzea helburu duena. Gaur egun ia 100 lagun ari dira parte hartzen. Iruñeko taldean izena emateko aukera oraindik ere zabalik dago.

# Euskaraz blai gaztetxoan aisialdian

DN

Iruñea

**T**OPAGUNEAK, Nafarroako euskara elkarte bazkideen enkarguz 2009an jarri zuen martxan *3Blai* ekimena, Nafarroan zehar haur eta gazteentzat aisialdi programak eskaintzeko helburuarekin. Haur eta gazteen aisialdia tresna bezala erabiliz, hauen hizkuntza ohituretan eragin nahi du.

Larunbat arratsaldetan biltzen dira 16:30etatik 18:30etara eta era guztietako ekintzak eta tailerrak egiten dituzte bertan: eskulanak, jolas antolatutak, kirola, beraiek proposatutako ekintzak... Haurrak adinaren arabera banatzen dira eta herri bakoitzean erritmo ezberdinetan garatzen joan den egitasmoa da, herri bakoitzaren behar eta baliabideen arabera.

Egitasmoan sartu den herri bakoitzak nondik hasi erabaki du: haurrekin (8-12 urte) *Larunblai* egitasmoan hasi ala gazteekin (12-16 urte) *Iseka* egitasmoan, zonalde bakoitzeko beharren arabera. Honela, Iruñeko Alde Zaharra, Aranguren, Berriozar eta Burlatan *Larunblai* taldea martxan jartzea erabaki zuten eta Uhartan, berriz, gazteekin *Iseka* gazte taldea sortu.

Gainera, datorren irailean begira, beste herri batzuk ere bere interesa erakutsi dute, hala nola: Etxauri, Lekunberri, Esteribar, Antsoain eta Olaztik. Gaur

Neska-mutil talde bat, *3Blai* programaren ekintza batean bilduta.

TOPAGUNEA

egun *3Blai* ia 100 lagun ari dira parte hartzen Iruñeko Alde Zaharra, Aranguren ibarra, Berriozar, Burlata, Etxauri eta Ultzaman.

Nahiz eta ikasturtea hasita egon, oraindik ere izena eman daiteke hainbat herritan. Iruñean lehenbiziko urtez ari dira *Larunblai* aurrera eramaten, Alde Zaharrean elkartzen da taldea, Auzoenean hain zuzen

ere. Iruñeko *Larunblai* izena emateko aukera oraindik ere zabalik dago. *3Blai*-ren helburua haur eta gazteen hizkuntza ohituretan eragitea da eta haien arteko komunikazio hizkuntza euskara izatea. Kontuan hartu behar da gaztetxo hauetako askoren aisialdia gaztelaraz ematen dela eta hor pasatzen dutela denbora gehiena. Berriz, ikasgelan pasatzen duten den-

bora urteak dituen orduen %12 besterik ez baita. Hori dela eta, haur eta gazteek euskara arlo akademikoarekin lotzen dute, ez lagunekin komunikatzeko tresna bezala. Horretarako, *3Blai* aisialdi ekintzez baliatzen da, euskarari balore positibo eta dibertigarri bat emanez, beraien bizitzako oroimen politik euskararekin lotzeko aukerak ugarituz.

## 'Karrikasolasa' foro informal berria abian jarriko dute

DN Iruñea

Karrikiri elkarteak euskal kulturari dagozkion gaiak jorratzeko foro bat sortu nahi du eta horretarako *Karrisolasa* izeneko proiektua martxan jarriko du. Bere asmoa lagun giroan bildu eta gure kulturarekin zerikusia duten hainbat gai, artikulua, ekarpen eta bestelakoak elkarrekin aztertu eta eztabaidatzea da. Horretarako Bixente Serrano Izko idazlearen laguntza izango dute Aitor Etxarte Karririkiri-dearekin batera. Foro informal hau hilero egiteko asmoa da, parte hartuko duten lagunei alde aurretik bertan aztertuko den informazioa helaraziz. Lehenengo hitzordua hilaren 16an izanen da Karrikiri elkartearen bertan (Xabier jaitsiera, 4), 19:00etan, *Jakin* aldizkariaren 180. alean (iraila-urria) argitaratutako *Egunen gurpilean* Lionel Joly-ren artikuluan oinarrituta.

## Ander Izagirrek teknologia berrien eragina azpimarratzen du

Euskarazko kazetaritzaren Jardunaldietan parte hartu zuen pasa den ostegunean, Nafarroako Unibertsitateak antolatuta

DN Iruñea

Ander Izagirre, idazle eta kazetariak, Nafarroako Unibertsitateko Euskarazko Kazetaritzaren X. jardunaldietan parte hartu zuen pasa den ostegunean. Bertan, blog-a, Twitter edo Facebook bezalako teknologia berrien balioa nabarmendu zuen bere erreportajeak zabaltzeko. Teknologia berri hauekin, Izagirreraren lan batzuk "medio tradizionalekin erdietsi ez duten oihartzuna" lortu dute. Honez gain, kazetariak bere kazetaritza "autonomo" bezala definitu zuen askatasuna ematen diolako bai gaietan baita denboran ere. Askotan "dirua galtzen" duela onartu zuen bidaiak ezin dituelako ordaindu irabazten duen diruarekin, baina bere lana izugarri



Ander Izagirre, osteguneko hitzaldian.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

gustatzen zaio. "Egunkariak nire erreportajeetatik dirutza ordaintzea gustatuko litzaidake, baina ez da posible. Hori dela eta, beste ekintza paralelo batzuk egiten ditut". Ander Izagirre Euskarazko Kazetaritzaren X. Jardunaldietan parte hartzen duen bigarren kaze-

taria izan zen. Jardunaldi hauek datorren ostegunean, martxoaren 10ean, bukatuko dira Asier Larrinagarekin, EITBko euskara arloko arduradunarekin. Larrinagak Kazetarientzako baliabideak eta HIKEA aplikazioaren inguruan hitz egingo du.

### ZEHATZ-MEHATZ

**Zer da '3Blai'?** 2009an sortutako aisialdi programa da, haur eta gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko asmoz.

**Nori zuzenduta dago?** Bi egitasmo daude, adinaren arabera: *Larunblai*, haurrei zuzenduta (8-12 urte) eta *Iseka*, gaztetxoentzat (12-16 urte).

**Zenbat talde osatu dira?** Oraingoz ia 100 lagun ari dira parte hartzen Iruñeko Alde Zaharra, Aranguren ibarrean, Berriozar, Burlata, Etxauri eta Ultzaman. Taldeak larunbat arratsaldetan biltzen dira, era guztietako ekintzak eta tailerrak egiteko.

**Nortzuk bultzatzen dute?** Elkarlanean sustatutako egitasmoa da. Topagunearekin batera egitasmoa martxan jartzeko erabakia euskara elkarteek hartu bazuten ere. Ametza, Karrikaluz, Karrikiri, Dindaia, Biltoki, Zaldiko Maldiko, Kima eta Zorroka euskara elkarteak dira *3Blai* programaren sustatzaileak. Lehenago aipaturiko udalen laguntza ekonomikoz gain, Udalbide elkarlan fundazioaren babes ekonomikoa ere badu proiektuak.



Soka dantza erakusketaren argazki bat. IÑAKI SAN MARTIN

### 'Soka dantza' argazki-erakusketa antolatu da Altsasuko Iortia gunean

Iñaki San Martin argazkilaria *Apur batean Soka Dantza* erakusketa egongo da ikusgai Altsasuko Iortia kulture gunean, hilaren 25ra arte. Elementu materialak (ehunak, koloreak, pintzelak) eta kulturalak elkartzea izan da bere lanaren oinarria. Bi urtetan aritu zen Soka Dantzari argazkiak ateratzen, Euskal Herriko folkloreaken aberastasuna nabarmenduz. DN